

ERAKUNDEAREN DATUAK

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	IZFE, S.A.
2. Sektorea:	Sektore publikoa
3. Langile kopurua:	150
4. Webgunea:	www.izfe.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Gipuzkoako informatika zerbitzuen foru elkarte

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Eneritz Lazkano Agirrezabalaga
Helbide elektronikoa:	elazkano@gipuzkoa.eus
Telefonoa:	943 11 38 78

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

<p>1. Praktika onaren titulua:</p>	<p>Sustatzaileen taldea</p>
<p>2. Praktika onaren azalpena:</p> <p>Zer da? Zertan datza?</p> <p>Nondik dator?</p> <p>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</p>	<p>Sustatzaileak Izfeko Euskara Planeko egitasmo ezberdinak antolatzen eta dinamizatzen dituzten lankideak dira. Talde honen helburu nagusia da Izfen euskararen erreferentziazko pertsonak izatea eta euskararen erabileraren motorra izatea.</p> <p>Hauek dira sustatzaileen funtzioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Izfen euskararen alorrean hobetu beharreko alderdiak identifikatu, alderdi horiek hobetzeko lantaldeak sortu eta horietakoren batean parte hartzea. • Lantalde bakoitzak dagokion gaiaren azterketa zehatza egin eta gai horretan aurrerapausoak emateko plangintza zehatza osatu. • Lantalde bakoitzak bere plangintza propioa martxan jarri. • Urte amaieran plangintzaren emaitzak sustatzaile guztiei aurkeztu eta segimendua egiteko bideak zehaztu. <p>Urteko kudeaketa-planean lehentasunezko gaiak identifikatzen dira eta gai horiek lantzeko sustatzaileen lantaldeak izendatzen dira. Lantalde batzuk dinamika iraunkorragoa dute, eta beste batzuk, helburu jakin batekin hasi eta helburua betetakoan amaitutzat eman dute euren lana. Hauek dira egitasmoa martxan jarri zenetik sustatzaileekin osatutako lantalde ezberdinak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • OstiraIERO: trebakuntza-pilula bat da, astero argitaratzen dena, ostiraletan. Sustatzaile-lantalde batek prestatzen du eta zabaltzen du. Bertan jasotzen dituzte hizkuntza-gomendioak, asmakizunak, bitxikeriak, zazpikiak... B1-B2 euskara gaitasuna duten lankideei astero euskaraz irakurtzeko aukera eskaintzea da egitasmo honen helburua.



- **Izferko tribiala:** urtero irailetik abendura bitartean antolatutako galdera-erantzunen jokoa da. Sustatzaileen talde batek aplikazio batekin Izferko tribialean jokatzeko tresna propioa sortu zuen eta urtero galdera ezberdinak prestatu dituzte. Puntu gehien lortutako langileen artean finala egin izan dute abenduaren 3an.
- Behatxulo: Izferko sarrerako pantaila elektronikoan langileentzako eduki interesgarriak euskaraz argitaratzeko egitasmoa da. Sustatzaile-lantalde batek edukiak prestatu eta pantailaren bidez zabaldu ditu. Bertan jaso dituzte berrikuntza informatikoak, aisialdirako proposamenak, hizkuntza-kontuak...
- **Euskaraldia** dinamizatzeko lantaldea: Euskaraldiaren edizio guztietan martxan izan den sustatzaileen lantaldea. Langileek izena emateko kanpainak, testigantza-bideoak, aurkezpenak... antolatu dituzte.
- **Euskararen Astea:** Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira Euskararen Astea antolatu ohi da Izfen. Sustatzaile-lantalde batek aste osorako inizatiba ezberdinak antolatzen ditu: hitzaldia, altxorraren bila digitala, erakusketa, escape room-a euskaraz...
- **Euskararen erabilera barne-bileretan:** barne-bileretan euskarak duen presentziaren neurketa bat bideratu zuen sustatzaileen talde honek. Emaizak aztertu zituzten eta euskararen erabilera handitzeko egitasmo bat jarri zen martxan: Berbasarea.
- **Itzulpenak egiteko irizpideen errebisioa eta protokoloaren lanketa:** Izfen 2014an itzulpenak egiteko zehaztutako irizpideak aztertu ditu lantaldeak. Sortze-hizkuntzari buruzko galdetegi bat bideratu dute langileen artean eta itzulpenak egiteko joeren inguruko informazioa jaso dute. Ondorioak atera dituzte eta egungo beharrak identifikatu dituzte.
- **Sortze-hizkuntza:** idatzizko euskararen erabileran eragiteko asmoz, Izferko lantalde batekin proiektu pilotu bat abiatu da. Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu batekin proiektuak partekatzen dituen

Izferko lantalde batean jarri da martxan. Helburua da lantalde horrek GFAko departamentu horrekin dituen proiektuetan ahozko eta idatziko harremana euskaraz izatea, sortze-hizkuntza euskara izatea. Garatzen ari diren proiektuak aztertu dituzte konpromisoak zehaztu dituzte bi erakundeek.

Sustatzaileen Taldearen egitasmoa 2014an jarri zen martxan eta, orduetik, urtero langile guztiei parte hartzeko gonbidapena egiten zaie. Horrez gain, Izfen lanean hasten diren lankide berriei zuzenean sustatzaileen taldearen berri ematen zaie eta bertan parte-hartzeko gonbita luzatzen zaie, bakoitzak nahi duen lantaldean, nahi duten gaiaren lanketan.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA